



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Leire Bazterrika Loiarte.
Francisco Michelena Celayeta.

2017ko irailaren 11n, 8:00etan, Zubietako Herriko Etxean elkartzen dira ohizkanpoko biltzarrean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. HERRIKO OSTATUA.

A.O.G.k adierazu du *Herriko Ostatuko* errentamendua uzteko asmoa. Ondorioz, lehiaketa berria egiteko baldintzen agiria aztertu da eta aho batez erabakitzen da:

1. Lehiaketa irekirako deia egitea, *Herriko Ostatuan* tarberna, hostel eta jatetxe zerbitzuaren errentamendua adjudikatzeko.

2. Baldintza plegua onestea. Hasierako prezioa, hilabeteko 150 eurotan finkatu da eta errentamenduaren iraupena, 3 urtetan.

Eta bertzerik ezean, 08:15 direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.